

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

2898

AGINDUA, 2012ko ekainaren 8koa, Herrizaingoko sailburuarena, handizkako txatarra eta beste hondakin-produktu batzuen komertzioak direla-eta Ertzaintzarentzako erregistro- eta informazio-obligazioak betetzeko era garatzeko dena.

Herritarren segurtasunari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikuluan honako hau aurreikusten da: herritarren segurtasunerako muntako jarduerak gauzatzen dituzten pertsona naturalek eta juridikoek informazio-eta dokumentu-erregistroko jarduketak –indarren den araudikoak– egin beharko dituzte.

Beherago zehaztutako arauekin bat etorriaz, hondakin metalikoak kudeatzen dituzten zentron titularrek, eta oro har handizkako txatarra eta beste hondakin-produktuen merkataritza-establezimenduek honako hauek izan beharko dituzte: egindako operazioen erregistro-liburu bat izatea, eta segurtasun-indar eta -kidegoei informazioa emateko obligazioa konplitzea. Direlako arauak: Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 12. artikulua; eta 1924ko urtarrilaren 19ko Errege Aginduaren (oraindik indarrean denaren) lehen atala.

Aipatu obligazioei dagokienez Estatuko Administrazioaren eremuan, 1989ko azaroaren 2ko Barne Arazoetarako Ministroaren Agindua eman zen, izan ere, bertan arautzen baitira erregistro-liburuak eta obligaziozko kontrol-agiriak prestatzeko modalitateak; eta, halaber, uztailaren 1eko INT/1920/11 Agindua ere eman zen, non honako hauei dagokienez kontrola sendotu egiten baita: hondakin metalikoak kudeatzen dituzten zentroek burutzen duten kobre-komertzioa; eta handizkako txatarra eta beste hondakin-produktu batzuen komertziorako establezimenduak.

Bitarteko telematikoen bitartez bada aukerarik (lehen ez bezala), segurtasun publikoaren erantzule denez, Administrazioaren zerbitzua –herritarrei eman beharrekoa– hobetzeko; izan ere, informazioaren eta dokumentazio-erregistroaren arloetako jarduketak egitea beharturik baitaude establezimenduek, eta horretaz gailan, segurtasun publikorako garrantzizko informazio hori Ertzaintzari helarazi beharko diote albait arinen, eta horren ondorioz, aipatu jarduketaren kontrola areagotu egiten da.

Ildo horretan, agindu honen bitartez ahalbidetu egiten da, batetik, atazak azkar eta eraginkortasunez egitea, eta, bestetik, bitarteko telematikoak erabiltzera, aipatu informazioa helarazteko kanal egoki gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen arrunta dut honako hauek gainean: ondasun eta pertsonen babesaren gainekoa, eta haren lurraldean herritarren segurtasunaren gainekoa; halako modez non Ertzaintzari dagokio herritarren segurtasunerako jarduketa garrantzizkoak kontrolatzeko ahalmena; ahalmen hori, beste eremu batzuetan, Estatutuko segurtasuneko indar eta kidegoei dagokie.

Hori dela eta, honakoa

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Hondakin metalikoak kudeatzen dituzten zentroek, eta, oro har, handizkako txatarra eta beste hondakin-produktu batzuen komertziorako establezimenduek egiten dituzten operazioei dagokienez (indarreango araudian zehaztutakoak), informazioaren eta dokumentazio-erregistroaren arloetako obligazioak nola bere arautzen da agindu honen bitartez.

Tratamendurako zentro baimenduak kanpo geratzen dira, baldin eta jada erabiltzen ez diren ibilgailuetatik hondakinak soilik kudeatzen badituzte.

2. artikulua.– Ertzaintzari datuak telematikoki komunikatzea.

1.– Hondakin metalikoak kudeatzen dituzten zentroek, eta, oro har, handizkako txatarra eta beste hondakin-produktu batzuen komertziorako establezimenduek, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutakoak badira, Ertzaintzari jakinarazi beharko dizkiote –bitarteko telematikoen bidez– kobrea edo beste edozein hondakin metalikoren sarrera; horiek eskuratu direnetik harako hogeita lau orduen barruan jakinarazi ere.

2.– Hartarako, Administrazioak finkatu parametro teknikoak eta ezaugarriak bete beharko dira, hain justu ere Ertzaintzaren <http://www.ertzaintza.net> web-gunearen bitartez, betiere agindu honetako I. eranskineko azken paragrafoan zehaztutakoarekin bat etorriaz.

3.– Informazioa jaso osten, hura aipatu bitartekoaz eskuratutakotzat joko du Ertzaintzak.

3. artikulua.– Ebazpena.

1.– Metalen sarrerak guztiak erregistratu beharko dira, barne delarik I. eranskinean aipatu informazioa. Aipatu zentroak edo establezimenduak kudeatzen duen operazio-erregistroan sartuko da informazio hori.

2.– Prozedura informatikoen edo egoki den beste moduren baten arabera, idatzoharren edo idazpenen bitartez kudeatu daiteke Erregistroa. Beste modu horietakoak dira: orri banakoak edo enkuadernatuak, eta kasu horietan, agindu honetako II. eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera orriak erabili beharko dira. Edozelan ere, erregistratutako informaziora berehalako sarrera izango du Ertzaintzak.

3.– Establezimenduek hiru urtez gordeko dute I. eranskinean aurreikusi informazioa, zeina eskura izanen baitute Ertzaintzan ikuskaritza-eskumenak dituzten kideek.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hondakinen eta segurtasun publikoaren arloetan eskumenka dituzten sailek, indarreango araudiak eskatzen dituen informazio-komunikazioei dagokienez, ezarriko dituzte mekanismo eta protokolo beharrezkoak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Agindu honetan aipatzen diren establezimenduen titularrek sei hilabete izango dituzte, indarrean hasten den egunetik hasita, aginduan aurreikusitakoetara egokitzeko.

2.– Epe horretan, agindu honetan aipatzen diren komunikazioak bide telematikoak erabiliz egin ezin dituzten establezimenduen titularrek Udaltzaingoak Koordinatzeko eta Segurtasun Pribatuko Zuzendaritzari honako hau jakinaraziko diote: zer bide erabiliko duten beren komunikazioak egiteko, zergatik ezin duten egin komunikazio telematikoa, eta noizko erabiliko duten sistema hori (horretarako, sei hilabete izango dituzte gehienez ere).

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 8a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

I. ERANSKINA: Ertzaintzari jakinarazi beharreko datuak

a) Establezimenduaren datuak:

Izena

IFK/IFZ/AIZ

Helbidea, herria, lurralde historikoa

Helbide elektronikoa

b) Operazioari buruzko datuak:

Erregistroko hurrenkera-zenbakia, .

Eskurapen eguna

c) Saltzailearen datuak:

Izena (pertsona fisikoa edo juridikoa)

Abizenak

Jaioteguna:

Sexua:

Agiri-mota

Agiriaren zenbakia

Nazionalitatea

Helbidea, herria, lurralde historikoa

Saltzailearen ibilgailuaren datuak: Mota, marka, modeloa, matrikula

d) Eskuratutako materiala:

Objektu mota

Objektua identifikatzeko datuak edo ezaugarriak

Pisua / kantitatea

Ordaindutako prezioa:

Aplikazioan sartzeko eta datuen jakinarazpen telematikoak egiteko, zehaztasun orokorrak eta baldintza teknikoak erabiltzailearen gidaliburu batean jasota daude, helbide honetan: www.ertzaintza.net.

II. ERANSKINA

HONDAKIN METALIKOEN KUDEATZAILEEK EGINDAKO OPERAZIOAK

Operazioa

Erregistroko hurrenkera-zenbakia	Eskurapen eguna

Establezimenduaren datuak:

Izena	IFK/IFZ/AIZ	
Helbidea	Herria, probintzia	Helbide elektronikoa

Saltzailearen datuak

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizenaS	Jaioteguna
Sexua	Agiri-mota	Agiriaren zenbakia	Nazionalitatea
Helbidea	Udalerria		Lurralde historikoa
Ibilgailu mota	Marka	Modeloa	Matrikula

Eskuratutako materialaren datuak

Nolako hondakin metalikoa	Objektua identifikatzeko datuak edo ezaugarriak	
Zenbatekoa:	Pisua	Ordaindutako prezioa:

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikulukoa betetzearren, eta Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 12. artikulua xedatutakoan oinarritutik, jakinarazten da ezen, informazioa kudeatzeko helburuarekin, datu pertsonalak Segurtasun Sailburuordetzako tratamendu-fitxa baten sartuko direla. Datuetan sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta horien aurka azaltzeko eskubidea erabili ahal izango du eraginpeko pertsonak, hain justu ere fitxategiaren ardura duen pertsonaren aurrean; CEDSP Segurtasuneko Sailburuordearen Kabineta, Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio/Bizkaia

Jarraibideak

Erregistroko hurrenkera-zenbakia,. Erregistro-orriko zenbakiak korrelatiboak izango dira

Eskurapen eguna UUUU/HH/EE formatuan beteko da.

Saltzailearen izena: pertsona fisikoa edo juridikoa

Abizenak: Soilik pertsona fisikoak. Halakorik badu bigarren abizena ere jasoko da.

Jaioteguna: Soilik pertsona fisikoak. UUUU/HH/EE formatuan beteko da.

Sexua: Soilik pertsona fisikoak. Gizonezkoa edo andrazkoa den adieraziko da

Agiri-mota: NAN/AIZ/IFK/pasaportea.

Nazionalitatea: Nazionalitatea dueneko herrialdearen izena.

Helbidea: Pisu, zenbaki, bide, bide motaren formatuarekin bete beharko da.

Metal mota: kobrea, aluminioa, altzairu herdogaitza, zinka, brontzea, beruna, burdina eta burdinazko txapa.

Objektua identifikatzeko datuak edo ezaugarriak: Identifikatzea ahalbidetzen duen deskripzioa.

Pisua: Kilogramotan.